



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresak funtziona dadin hainbat elkarte beharko ditugu; hornitzaileak, aseguruak, adituak... Nagusienak hornitzaileak izango dira, izan ere, haiek gabe ez dugu salgai produkturik edukiko. Haien artean hotelak eta hostalak garrantzi handia izango dute: haiek gure webgunearen bidez edo Booking.com bezalako beste webgune baten bidez, baina beti gure izenpean, egin behar izango dituzte erreserbak, eta erreserben diruaren ehuneko bat guri eman beharko digute gure zerbitzu eta publizitatearen truke. Beraiek honen truke gure jasagarritasun bermea jasoko dute eta honen ondorioz bezero gehiago edukiko dituzte.

Beste hornitzaile garrantzitsu bat taberna, kafetegi eta jatetxeak izango dira. Haiekin hotel eta hostelekin dugun antzeko funtzionamendua izango dugu; gure adituek beraien negozioaren jasagarritasunaz zihurtatuko dira, eta ondoren, gure webgunean eta sare sozialetan egindako publizitatearen truke gure dirua jasoko dugu. Baina, hotel eta hostelekin ez bezala, negozio hauek tasa finko bat ordaindu beharko digute, eta tasa hau ordaintzeaz gelditu ezgero gure bermea eta publizitatea galduko lukete.

Enpresa hauen jasagarritasuna ziurtatzeko adituak kontratatuko ditugu. Hauek enpresen datu eta hornitzaileei begiratuko diete hostal, hotel, taberna edota jatetxearen jasagarritasun ekologikoa baloratzeko.

Horrez gain, beste hainbat enpresei erosiko diegu lokalean beharko ditugun ordenagailuak, altzariak, inprimagailuak... Eta lokal hau garbitzeko ere garbiketa enpresa batekin jarriko gara harremanetan. Horrez gain, argindarra eta ur zerbitzuak ere kontratatu beharko ditugu lokalarentzat.

Webgune hornitzaile bat ere beharko dugu, ezinbestekoa izango delako web bat erabilgarria izatea gure jardura egin ahal izateko. Webgunea diseinatzeko ere diseinatzaile profesional batekin egingo dugu lan webguneak diseinu modernu eta atsegin bat izan dezan.

Enpresaren segurtasunaz ziurtatzeko aseguruak kontratatu beharko ditugu. Alde batetik, derrigorrezko aseguruak kontratatu beharko ditugu: istripu aseguruak, erantzukizun zibilaren aseguruak eta multiarisku aseguruak. Horrez gain, beste hainbat seguru kontratatuko ditugu, batik batik, lokala aseguratzeko. Aseguru hauek guztiak Allianz aseguratzailarekin kontratatuko ditugu.